

Orriak

1-2 /	SARRERA INTRO INTRO
3-8 /	ORGANISMO BIZIDUNEN AGENTZIA AGENCIA DE ORGANISMOS VIVIENTES AGENCY OF LIVING ORGANISMS — Pauline Doutreluingne —
8-11 /	NATURA BASATIAREN ALDE EN DEFENSA DE LA NATURALEZA SALVAJE A PLEA FOR WILDERNESS — Koenraad Van den Driessche —
12-21 /	OBREN ZERRENDA LISTADO DE OBRA WORK LIST
22 /	ERAKUSKETAKO PLANOA PLANO DE LA EXPOSICIÓN EXHIBITION FLOOR MAP
23 /	AGENCYOFLIVINGORGANISMS.COM
24 /	ERAKUSKETAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA EXPOSICIÓN ACTIVITIES LINKED TO THE EXHIBITION
25-26 /	HEZKUNTZA-PROGRAMA PROGRAMA DE MEDIACIÓN EDUCATION PROGRAMME



Sarrera

Erakusketa hau duela justu urtebete, 2015eko azaroan, egindako egonaldi baten ondorio gisa sortu da. Data hori baina hilabete batzuk lehenago, Laurence Rassel, Marta Ponsa eta Inazio Eskuderok osatutako epaimahai batek, deialdi publiko bati erantzunez aurkeztu ziren 75 proposamenen artean Pauline Doutreluingnek aurkeztutako proiektua hautatu zuen.

Intro

Esta exposición nace como resultado de una residencia que tuvo lugar exactamente hace un año, en noviembre de 2015. Unos meses antes habíamos seleccionado con un jurado compuesto por Laurence Rassel, Marta Ponsa e Inazio Eskudero el proyecto que Pauline Doutreluingne había propuesto en la convocatoria pública a la que se habían presentado un total de 75 proyectos.

Hautatutako proposamenaren oinarria gizarte egituren eta naturaren arteko harremanean zetzan, eraikuntza prozesuan zegoen gorputz teoriko bat zen, abiapuntutzat hartzen zen tesia islatzen zuten nazioarteko artista zerrenda batez eta obrez lagundua.

Lau astez luzatu zen egonaldian, Paulinek jorratu nahi zuen gaira hurreratzen ziren Bilbo, Donostia eta inguruetako artisten estudioak bisitatu zituen. Hitzorduak lotu zituen, halaber, Aquarium-ean, Zumaiaiko Flysch-en eta zenbait zientzialarirekin, tokiko ikuspegia eman ziezaioten. Prozesu horretan zehar, berarekin hizketan jardun genuen, bere narrazioaren konposaketan ematen zituen pausuk baloratuz. Eta ondoren, harreman horrek distantzian jarraitu du.

Erakusketa hau, ia erakusketa guztiak bezalaxe, oinarri kontzeptual batetik abiatu zen, eta ikerketaren, elkarriketen eta artistekin izandako hizketaldien bitartez joan da definitzen. Erakunde garen neurrian, geure proposamen propioez harago, beste proposamen batzuk ezagutzea interesatzen zaigu, eta horien garapenean parte hartzea, egoiliararekin eta testuinguruarekin harremanean. Horrela, bide batez, tokiko ehun artistikoa beste testuinguru batzuetan ezagutu dadin laguntzen dugu.

Erakusketa bat bizirik dagoen prozesu bat da, mutatzen eta aldatzen doana prestakuntza eta laguntza fasetik hasita, artisten jarreraren arabera eta piezen egokitasunaren arabera. Paulinen egonaldia garrantzitsua izan zen, nolabait, abiapuntua indartzeko eta beste aukera batzuk zabaltzeko. Orain, egonaldi horretan egindako lanaren emaitza aurkezten dizuegu.

La propuesta tenía como base la relación entre las estructuras sociales y la naturaleza, un cuerpo teórico en construcción apoyado por un listado de artistas internacionales y obras que representaban la tesis de partida.

Durante su estancia de cuatro semanas, Pauline visitó estudios de artistas en Bilbao, Donostia y alrededores que, de alguna manera, se aproximaban al tema. También concertó citas en el Aquarium, en el Flysch de Zumaia y con otros científicos para que le diesen una perspectiva del medio local. En este proceso fuimos hablando y valorando los pasos que iba dando en la composición de la narración que después ha continuado en la distancia.

La construcción de esta exposición, como casi todas, partió de una base conceptual y se ha ido definiendo a través de la investigación, las entrevistas y las conversaciones con artistas. Como institución, nos interesa conocer propuestas más allá de las nuestras propias y participar en el desarrollo de las mismas, en diálogo con el/la residente y el contexto, con la idea de dar a conocer el tejido artístico local en otros contextos.

Una exposición es un proceso vivo que va mutando y alterando según esta fase de preparación y acompañamiento, de la disponibilidad de los artistas y de la adecuación de las piezas. La estancia de Pauline fue importante para, de alguna manera, fortalecer esa base de partida y abrir todas las posibilidades. Ahora os presentamos el resultado del trabajo realizado durante esa estancia.

Intro

This exhibition sprang out of a residency that took place exactly a year ago, in November 2015. A few months before we, together with a jury made up of Laurence Rassel, Marta Ponsa and Inazio Eskudero, had selected the project presented by Pauline Doutreluingne, out of an open call with a total of 75 submissions.

The basis of the proposal was the relationship between social structures and nature, a body of theory under construction supported by a list of international artists and works representing the initial thesis.

During her four-week residency, Pauline visited artists' studios in Bilbao, Donostia and the surrounding area which, in some way, related to the thesis. She also went to visit the Aquarium, the Flysch of Zumaia and different scientists to get an idea of the local environment. In this process we discussed and assessed her progress in composing the narrative that she then carried on from a distance.

The construction of this exhibition, like nearly all of them, set out from a conceptual basis and developed out of research, interviews and conversations with artists. As an institution, we are interested in finding out about proposals that go beyond our own and helping to develop them, in dialogue with the resident and the context, with the idea of making the local artistic fabric known in other contexts.

An exhibition is a living process that mutates and changes during this phase of preparation and support, according to the availability of artists and the suitability of the pieces. Pauline's stay was important in strengthening this starting point in a way and opening up the full range of possibilities. We now present the result of the work done during this residency.

Organismo bizidunen agentzia

Pauline Doutrouingne

Talde-proiektu bat da *Agency of Living Organisms* (Organismo bizidunen agentzia) eta gure inguruko hainbat organismo biziren arteko komunikazioa aztertzen du. Kosmografia artistiko gisa aurkezten da eta buru-belarri kolaboratzen du hainbat artistarekin. Artista gehienek lan berriak egin dituzte beren-beregi proiektu honetarako.

*Pentsamendu garaikideak erakusten digunez, izakiak jada ez datoz bat beren fenomenoekin. Azken batean, hainbat mailatako izakiei buruzko pentsamenduak osatzen du ekologia, eta denak dira berdin lehentasunezko.*¹

Naturako fenomenoak gero eta gehiago ezagutzen zituenez eta, horrez gainera, konfiantza handia zuenez arrazoiaren indarrean, ikerketa zientifikoa oinarri, gizakiak sinetsi zuen bere “zentzu komuna” erabil zezakeela “natura basatia” bezatzeko eta kontrolatzeko. Gogo ilustratuak aurreantztuak begiratu zuen, deliberoz, mundu hobea, berri eta egingarri baten garapenaz guztiz ziur. Eta, hala, natura errepresentatu, sailkatu eta zatitu zuen, eta kode sozialen, kode biologikoen eta lege-kategorien bidez ordenatu.

Giza historian, are lehenago hasi ziren gizakiak natura kolonizatzen: Mesopotamiako garaian, landareak eta animaliak bezatzen hasi zen gizakia, bere mesederako. Gizakiak, apurka-apurka, ingurune naturaletik ateratu zuen bere burua; ko-dependenziaren ideia baztertu zuen, eta kontrolaren ilusioan sinetsi. Industria-iraultzako garapen teknologikoaren ondorioz prozesua bizkortu zen eta itsu-itsuan sinetsi genuen mundu egingarri horretan, zeinean gizakia baitzen izaki gorena, eta badirudi horrek ekarri duela animalien eta landareen desagertzea globala.

Gure garai honetan, komunikabideak ditugu ingurune. Elkarki digitalki konektatuta dauden pertsonen gain-populaturak dago Lurra. Komunikabideen gizartea da gure *milieua*. Komunikabideen bidez, albiste beldurgarriak bonbardatzen dizkigute egunero. Sare sozialek joera izugarriak islatzen dituzte: erlijio erradikalitatea, indarkeria, terrorismoa, dogmatizazioa, arrazakeria, errefuxiatuak eta natur hondamendiak.

Gero eta lausoagoa da guztia gure HD pantaila zorrotzetan, komunikabideen abiadura dela-eta. Ilustrazioaz geroztik, garapenaren ideia izan dugu geure pentsamenduaren zutarri; orain, ordea, ikuskera egonkor hori kolokan dago. Larriki behar

Agencia de organismos vivientes

Pauline Doutrouingne

Agency of Living Organisms (Agencia de organismos vivientes) es un proyecto de arte colectivo que estudia la comunicación entre diferentes organismos vivientes de nuestro entorno. Se manifiesta como una cosmografía artística en estrecha colaboración con los creadores que muestran principalmente trabajos nuevos diseñados para este proyecto.

*Hemos visto cómo el pensamiento contemporáneo nos muestra que los seres ya no coinciden con sus fenómenos. Al fin y al cabo, la ecología, es el pensamiento de los seres en una serie de escalas diferentes, ninguna de las cuales tiene prioridad sobre la otra.*¹

Con el incremento del conocimiento sobre los fenómenos naturales, y la cada vez mayor confianza en la habilidad de la razón basada en la investigación científica, el ser humano creyó poder emplear su “sentido común” en domesticar y controlar lo “salvaje”. Las mentes iluminadas miraban adelante con resolución, en dirección a un mundo mejor, nuevo y fabricable, con la absoluta certeza del progreso. Y así, la “naturaleza” ha sido representada, categorizada, seccionada, ordenada según códigos sociales, biológicos y categorías legales.

La colonización de la naturaleza empezó mucho antes en la historia de la humanidad: en la Antigua Mesopotamia, los seres humanos comenzaron a domesticar a las plantas y a los animales para su propia supervivencia. La especie humana se sustrajo poco a poco del entorno natural, pasando de la co-dependencia hacia la ilusión del control. El progreso tecnológico que tuvo lugar en la revolución industrial aceleró todo el proceso y nos hizo creer ciegamente en un mundo que podíamos fabricar, siendo el ser humano el ser supremo, lo que parece traer consigo la extinción generalizada de la vida animal y vegetal.

En la época presente, los medios de comunicación son nuestro entorno. La gente que está conectada entre sí de forma digital está superpoblando el planeta Tierra. La sociedad del medio es nuestro entorno. Los medios nos bombardean cada día con noticias escalofriantes. Los medios sociales son un reflejo de las tendencias alucinatorias hacia la radicalización religiosa, la violencia, el terrorismo, el dogmatismo, el racismo, los refugiados y los desastres naturales.

Todo es cada vez más borroso en las nítidas pantallas HD, debido a la rapidez de cobertura de los medios. El suelo firme donde se apoyaba la idea del progreso, que marcó nuestro pensamiento desde la Ilustración,

¹ Timothy Morton, *Dark Ecology: For a Logic of Future Coexistence* (New York: Columbia University Press, 2016), 22. or.

¹ Timothy Morton, *Dark Ecology: For a Logic of Future Coexistence* (New York: Columbia University Press, 2016), p. 22.

ditugu munduari buruzko bestelako ikuspegiak, zabalagoak eta dekolonizatzaileak, eta giza pentsamendua berregituratu behar dugu gizarte-sistema gero eta konplexuagoari aurre egite aldera, zeinak, funtsean, halako beldurraren dinamika akastun bat baitu oinarrian.

Azken urteotan, gero eta arreta handiagoa eskaini zaio bestelako marko kontzeptualak garatzeari edo berreskuratzeari, marko kontzeptualok gai baitira oraindik ere pentsamendu mendebaldarrean nagusi diren bitasun hierarkiko sakonki erroteruei erroterka jotzeko eta horiek gainditzeko.

Hainbat filosofo garaikidek, hala nola Timothy Mortonek, Isabelle Stengers, Arjun Appadaraik, Peter Sloterdijk, Bruno Latourrek eta Felix Guattarik bestelako kontzeptu eta egiturak aztertzen dihardute: neo-animismo dei diezaiekegu ikuspegi horiei. Zatiketa bitarrak bazter uzten dira, hala nola gizakia vs. natura eta subjektua vs. objektua, eta, horren ordez, “gauzen” sare baten partetzat jotzen da gure inguruko guztia: dena dago elkarri lotua eta “gauza” denek eragiten diote elkarri.

“Spheres” trilogiaren hitzaurrean, Peter Sloterdijk esaten du bizidun guztiok konpartitzen dugula zer-bait: airean elikatuak izatearen patua.

“Airea da erabateko irakaslea: hezkuntza guztiz neurritsua dago eta osatu egiten gaitu. Ez du sekula hitz egiten, baina dena elkartzen du eta, hari esker, dena da posible. Are gehiago, antzinako jendeak haizearen teologian sinesten zuen, eta, batzuetan, meteorologia modernoa baino argiago suertatzen dira teologia horiek. Altxorra ziren, eta horiei esker, gizakiak konturatu ziren beti zeudela murgilduta gauza ia hautemanekin batean, nahiz eta oso erreala izan, eta murgiltze-espazio horrek menderatzen zituela arimaren egoerak oro, baita aldaketa intimoenak ere. Aireztapena da existentziaren sekretu sakona.”²

Hainbat unibertso mitologikotan –berezi, indoeuroparrean– zerutik datozen ekaitzak, tximistak, trumoiak eta haizeak. Antzinako euskal ikuskera animista, berriz, bestelakoa zen: naturaren fenomeno horiek lurrazpian sortzen ziren, eta kobazulo eta leizeetatik azaleratzen. Jainkosa garrantzitsuena eta Lurraren giza irudia zen Mari, eta berak sortzen eta bidaltzen zituen ekaitzak, sarri. Euskal Herriko kondairen arabera, oskol erraldoi eta mugagabe bat da Lurra, eta lurrazpian bizi dira hildakoen arimak, jainkoak eta izaki mitologiko gehienak.

Timothy Morton filosofoak ekarri zuen “hiper-objektuen” kontzeptua mahai gainera. Mortonen arabera, hiper-objektuak dira halako denbora- eta

se ha convertido ahora en una base tambaleante. Hay una necesidad urgente por expandir y descolonizar las visiones del mundo y por reestructurar el pensamiento humano para poder encargarse de las cada vez más agudas complejidades de un sistema social regido por una fundamentalmente errónea dinámica del miedo.

En los últimos años, se le presta cada vez más atención al desarrollo y/o recuperación de marcos conceptuales que sean capaces de retar y vencer ciertas dualidades que están profundamente arraigadas y jerárquicamente organizadas, y que continúan caracterizando al pensamiento Occidental.

Filósofos contemporáneos como Timothy Morton, Isabelle Stengers, Arjun Appadurai, Peter Sloterdijk, Bruno Latour y Felix Guattari hablan sobre nuevos conceptos y marcos que pueden darse en llamar neo-animistas. La visión dualista del ser humano vs. naturaleza, sujeto vs. objeto, se deja a un lado y todo lo que nos rodea es tratado como parte de una red de “cosas” que están conectadas entre sí y que se influyen mutuamente.

En la introducción de su trilogía *Esferas*, Peter Sloterdijk menciona que lo que compartimos con el resto de seres vivos es el destino de ser alimentados de aire.

“El aire es el profesor absoluto, y la educación que nos da es fundamental e infinitamente discreta. Nunca habla, pero todo lo une y todo lo hace posible. Los antiguos pobladores de nuestro mundo poseían teologías del viento que en ocasiones han resultado ser más inteligentes que la meteorología moderna. Era un tesoro que permitía a los seres humanos darse cuenta de que estaban siempre inmersos en algo casi imperceptible pero muy real, y que este espacio de inmersión domina los estados cambiantes del alma hasta en sus modificaciones más íntimas. La ventilación es el secreto profundo de la existencia.”²

En numerosos universos mitológicos, sobre todo en el indoeuropeo, las tormentas, los relámpagos, los truenos y el viento se originan en el cielo. Las antiguas creencias animistas vascas eran diferentes: estos fenómenos naturales se producían bajo la tierra, y emergían desde las cuevas y los abismos. La diosa más importante y personificación de la Tierra, Mari, en muchas ocasiones produce y envía tormentas. Según las leyendas del País Vasco, la Tierra (*Lurra*), es una cáscara gigante e infinita, y las almas de las personas muertas, los dioses y la mayoría de los personajes mitológicos viven bajo tierra.

El filósofo Timothy Morton puso de relieve el concepto de “hiperobjetos”. Morton emplea este término para explicar las entidades de dimensiones temporales

² Sloterdijk, Peter (2005): *Foreword to the Theory of Spheres*. In: Ohanian, M. & J.C. Royoux (eds.): *Cosmograms*. (New York: Lukas and Sternberg), 225. or.

² Sloterdijk, Peter (2005): *Foreword to the Theory of Spheres*. In: Ohanian, M. & J.C. Royoux (eds.): *Cosmograms*. (New York: Lukas and Sternberg), p 225.

espazio-dimentsio izugarri zabal batzuk, hain zabalak ezen gauzei buruz daukagun ikuspegi tradizionalari gailentzen baitzaizkio. Hiper-objektuak dira, adibidez, klima-aldaketa, biosfera, zulo beltzak, kapitalismoa, munduko poliestireno guztiaren batuketa eta plutonio erradioaktiboa. Beren denborazkotasun bereziaren ondorioz, gizakiek ez dituzte ikusten tarte bat pasatu arte, eta objektuekiko harremanean nabaritzen dira haien ondorioak. Gainera, hiper-objektuen ondorioz, giza artea eta bizipenak (maila estetikoan) ere ari dira aldatzen.

Gizakia, funtsean, izaki ñimiñoa da, eta oso historia laburra du unibertsoaren denbora-lerro geologikoan. Geologoek erakutsi digute garai geologiko berri batean bizi garela, Antropozenoan. Nahiz eta txikiak eta itxuraz hutsalak izan, gizakiok, indar geologiko gisa, sekulako eragina izan dugu biosferako, atmosferako, litosferako eta hidrosferako izakiengan. Zergatik? Bada, garapen teknologikoaren grina bizi izan dugulako, ez dugulako ulertu erregai fosilak agortu egiten direla, eta lurrazala ustiatu dugulako, mineral bila.

Halako “natura” berri bat ari da sortzen, gizakiok taxutua. Gizakiok lurrean sortutako aldaketa guztien batura da. Gaur egun, teknosfera eta biosfera elkar ekintzan ari dira eta fenomeno neonaturalak sortzen dituzte.

Antropozenoko ekosistemak nonahi daude, baita zorrotz kontrolatutako tokietan ere, hala nola erietxeetan, non jendeak bere baldintza propioak sortzen baititu bakterioak garatzeko, eta industria-guneetan eta hondakin-erraustegietan, non usoek, mapatxeek eta landare-mota berriek aterpea topatu baitute.

Teknologiak geologia eraldatu du eta desagertze biologikoek eta hondamenak, berriz, organismo berriak bizi arazten dituzte.

Organismo bizidunen agentzian parte hartzeko hautatutako artista, zientzialari eta diseinatzaile grafikoek ere uste dute beren jarduna beste “gauza” batzuekin lotuta dagoela, eta begirada kritikoz erreparatzen diete beren inguruko eremuei. Ikuspegi berriak, iruditeria berezia eta narratiba zabalagoak dakartzate; gainera, arreta jartzen diete normalean nabaritzen ez ditugun gure inguruko xehetasun eta harremanei. Agenteez ez diete izkin egiten sailkapen sistema, kategoria eta balio-sistema Nonahikoen auziari, eta beren esperimendu poetikoen bidez, ikuspegi berri bat irekitzen dute munduan.

Ekologiaren kontzeptu zabalago bati heltzen dio proiektuak (*ekologia soziala, mentala eta ingurunearena*)³, eta iluna da hori, Timothy Mortonek modu ederrean deskribatu bezala:

³ Félix Guattari, *The Three Ecologies* (London: Continuum, 2005, [1989]). *The French psychoanalyst and theoretician Félix Guattari tried from the late 1970s on to translate and convert this movement into a philosophical-political program.*

y espaciales tan ingentes que superan las ideas tradicionales sobre lo que es una cosa en primer lugar. Algunos ejemplos son el cambio climático, la biosfera, los agujeros negros, el capitalismo, la suma de todo el poliestireno extruido y el plutonio radioactivo. Su singular temporalidad las hace invisibles ante los seres humanos durante lapsos de tiempo y muestran sus efectos en la interrelación de los objetos. Los hiperobjetos también están cambiando el arte y la experiencia (dimensión estética) de los seres humanos.

El ser humano es una criatura diminuta en el universo, con una historia breve en la línea del tiempo geológico. Los geólogos han mostrado que vivimos en una nueva era geológica: el Antropoceno. Aunque seamos tan pequeños y aparentemente insignificantes, nuestro deseo por el progreso tecnológico, junto con nuestras falsas creencias sobre los combustibles fósiles inagotables, seguida de la explotación mineral de la corteza terrestre, han hecho que el ser humano sea una fuerza geológica con un impacto enorme sobre otros organismos de la biosfera, la atmósfera, la litosfera y la hidrosfera.

Se está creando un nuevo tipo de “naturaleza”, una naturaleza que ha sido moldeada por la humanidad. Consiste en la suma de todos los cambios causados por el ser humano en la tierra. Hoy por hoy, la *tecnosfera* y la biosfera interactúan para formar un fenómeno neonatural.

Los ecosistemas antropogénicos se extienden hasta zonas altamente controladas como pueden ser los hospitales, donde las personas crean sus propias condiciones evolutivas para las bacterias; o hasta las zonas industriales y las incineradoras de residuos, donde las palomas, los mapaches y las nuevas variedades de plantas han encontrado sus nichos.

La tecnología ha transformado la geología, y las extinciones biológicas y la descomposición han dado vida a nuevos organismos.

Los artistas, científicos y diseñadores gráficos seleccionados para participar en el proyecto *Agencia de organismos vivientes* conciben su práctica en estrecha relación con otras “cosas” y toman una postura observadora y crítica en relación con la esfera que les rodea, así como con la esfera interactiva. Proponen nuevas visiones, imaginarios únicos, narrativas amplias, y cierran el foco sobre detalles y relaciones de nuestro entorno en las que normalmente no reparamos. Los *agentes* no huyen del cuestionamiento de los sistemas y categorías de clasificación y sistemas de valores ubicuos, y sus experimentos poéticos abren una nueva visión del mundo.

El proyecto hace referencia a una noción ampliada de ecología (*ecología social, mental y medioambiental*)³, y es oscura, tal como Timothy Morton describe de forma muy hermosa:

³ Félix Guattari, *The Three Ecologies* (London: Continuum, 2005, [1989]). *The French psychoanalyst and theoretician Félix Guattari tried from the late 1970s on to translate and convert this movement into a philosophical-political program.*

Kontzientzia ekologikoa iluna da, horren muina ezin esanezkoa den bezainbatean. Iluna da, argitasunak preso egotearen sentipena areagotzen duen bezainbatean. Iluna da, zeren osatzen gaituzten zauri malenkoniatsuak aitortzera bultzatzen baikaitu: gure birikek arnasten duten oxigenoa sortu duten shockak, traumak eta kataklismoak ikusten ditugu, igeri-maskurietatik datozen birikak ikusten ditugu, bai eta gizakiak Lurra menderatzeko arrazoi umiliagarri eta izugarriak ere. Baina iluna da, baita ere, arraroa delako.⁴

Organismo bizidunen agentzia eskultura sozial baten gisakoa da. Joseph Beuysek sortu zuen kontzeptu artistiko hori, izan ere, bere iritziz, artearen bidez gizartea eralda zitekeen. “Nola mamitzen ditugun gure pentsamenduak hitzen bidez [eta] nola taxutzen eta egiten dugun bizi garen mundua”. Bere inguruarekiko harremanean existitzen den lan bat da eskultura. Erakusketa-proiektu honetako eskultura guztiak zuzenean lotuta daude erakustareto kanpoko ingurune “naturalarekin”, eta, era berean, eskulturak beren artean lotuta daude. Eskultura ia “bizidun” hauek, gainera, lehen aipatutako “hiper-objektuen” metafora ere badira, eta naturari buruzko zentzu berriak sortzen dituzte: “Natura (gauza reifikatu eta mitiko hori, han goian mendietan, gure DNAn, edonon), zeina desegin egiten baita parez pare begiratzen diogunean”.⁵

Ingurune- eta gizarte-krisi larrien aurrean gauden honetan, proiektu honen asmoa da, gure ingurune natural eta eraikiaren aurrean zer-nolako jarrera hartzen dugun aztertzea (nola kontsumitzen edo babesten dugun), eta, horrez gainera, norbere izatearen hautemateari erreparatzea, “besteen” begietatik, eta barnean hartzen gaituzten sare konplexuak ulertzea.

⁴ Timothy Morton, *Dark Ecology: For a Logic of Future Coexistence* (New York: Columbia University Press, 2016), 110. or.

⁵ Timothy Morton, *Queer Ecology* (University of Sussex, 2010)

La conciencia ecológica es oscura, en tanto que su esencia es inexpresable. Es oscura, en tanto que la iluminación nos conduce a sentirnos más atrapados. Es oscura, porque nos obliga a reconocer las heridas melancólicas que nos conforman –los shocks y los traumas y los cataclismos que han creado el oxígeno para que respiren nuestros pulmones, pulmones que han surgido de vejigas natatorias, y una razón demoledora y humillante que ha sido extraída de la dominación del ser humano sobre la Tierra. Pero también es oscura porque es extraña.⁴

La Agencia de organismos vivientes funciona como una escultura social. Esta terminología fue un concepto artístico creado por Joseph Beuys, que veía el arte como una oportunidad para transformar la sociedad. “Cómo damos forma a nuestros pensamiento mediante palabras [...] y cómo moldeamos y damos forma al mundo en el que vivimos”. Una escultura es una obra que existe en relación con su entorno. Todas las obras de este proyecto expositivo están directamente relacionadas con el entorno “natural” que se encuentra fuera de las salas de exposición y están en relación unas con otras. Las esculturas casi “vivientes” actúan además como metáforas de los anteriormente mencionados “hiperobjetos”, dando lugar a nuevos sentidos de la “Naturaleza (esa cosificación, ese algo mítico que se encuentra allá en las montañas, en nuestro ADN, en cualquier parte) que se desvanece cuando miramos directamente hacia ella”.⁵

Encontrándonos como nos encontramos en medio de apremiantes crisis medioambientales y sociales, este proyecto busca investigar nuestra posición con respecto a nuestro entorno natural y construido (la manera en la que lo consumimos o lo sostenemos), pero también ofrecer una visión sobre la percepción de uno mismo o una misma a través de los ojos de los “demás” y construir un conocimiento de las complejas redes en las que estamos incrustados.

⁴ Timothy Morton, *Dark Ecology: For a Logic of Future Coexistence* (New York: Columbia University Press, 2016), p. 110.

⁵ Timothy Morton, *Queer Ecology* (University of Sussex, 2010)

Agency of Living Organisms

Pauline Doutreluingne

Agency of Living Organisms is a collective art project, which explores the communication between different living organisms surrounding us. It manifests itself as an artistic cosmography in intensive collaboration with artists exhibiting mainly new works specially designed for this project.

We have seen how contemporary thought shows how beings no longer coincide with their phenomena; Ecology, after all, is the thinking of beings on a number of different scales, none of which has priority over the other.¹

With the increasing knowledge of natural phenomena and the growing confidence in the faculty of reason, relying on scientific research, man believed he might employ his ‘common sense’ to tame and control the “wilderness”. The enlightened mind looked resolutely ahead, with the absolute certainty of progress, towards a better, new and makeable world.

And so ‘nature’ has been represented, categorized, sectioned, ordered through social codes, biological codes and legal categories.

¹ Timothy Morton, *Dark Ecology: For a Logic of Future Coexistence* (New York: Columbia University Press, 2016), p. 22.

The colonization of nature started even much earlier in human history: in the age of Mesopotamia, man started the domestication of plants and animals for his own survival. Mankind gradually subtracted itself from the natural environment, from co-dependency towards the illusion of control. The technological progress in the industrial revolution accelerated the whole process and made us blindly believe in a makeable world with man as a supreme being, which seems to cause global extinction of animal and plant life.

In the present era, media has become our environment. People who are digitally connected to each other overpopulate planet Earth. The Society of the medium is our milieu. Through media, we are daily bombarded with frightening news. Social media mirrors the hallucinatory tendencies towards religious radicalization, violence, terrorism, dogmatization, racism, refugees and natural disasters.

Everything has become increasingly blurry on the crisp HD screens due to the media coverage speed. The stable support of the idea of progress, which underlined our thinking since the Enlightenment, stands on a shaky ground. There is an urgent need for broadening, decolonizing worldviews and a restructuring of human thinking in order to deal with the increasing complexities of a societal system that is driven by a fundamentally flawed dynamic of fear.

In recent years, more (and more) attention has been paid to the development and/or recovery of conceptual frames capable of challenging and overcoming deeply embedded, hierarchically organized dualities that continue to characterize Western thought.

Contemporary philosophers such as Timothy Morton, Isabelle Stengers, Arjun Appadurai, Peter Sloterdijk, Bruno Latour and Félix Guattari discuss new concepts and frameworks, which can be defined as neo-animism. The dualistic division of man vs. nature, subject vs. object, is put aside and everything around us is treated like part of a network of 'things' that are mutually connected and influence each other.

In the preface to his trilogy "Spheres", Peter Sloterdijk mentions that what we share with all other living beings is the destiny of being nurtured on air.

"Air is the absolute teacher and the education it gives us is constitutive and infinitely discreet. It never speaks, but it brings everything together and makes everything possible. Ancient peoples, moreover, possessed theologies of the wind that sometimes prove to be more intelligent than modern meteorology. It was a treasure that allowed human beings to realize the fact that they're always already immersed in something almost imperceptible and yet very real, and that this space of immersion dominates the changing states of the soul down to its most intimate modifications. Ventilation is the profound secret of existence."²

In many mythological universes - particularly in the Indo-European one - storms, lightning, thunder and wind are originated in the sky. The ancient Basque animistic understanding was different: these natural phenomena are produced underground, and emerge from caves and chasms. The most important goddess and the personification of the Earth, Mari, often produces and sends the storms. According to the legends of the Basque Country, the Earth (Lurra) is a giant infinite hull and the souls of the dead, the gods and most mythological characters live underground.

The philosopher Timothy Morton brought the concept 'hyperobjects' to the fore. Morton uses the term to explain entities of such vast temporal and spatial dimensions that they defeat traditional ideas about what a thing is in the first place. Examples are climate change, the biosphere, black holes, capitalism, the sum of all the Styrofoam and radioactive plutonium. Their unique temporality renders them invisible to human beings for stretches of time and they exhibit effects in the interrelationship of objects. Hyperobjects are also changing human art and experience (the aesthetic dimension).

Man is basically a tiny creature in the universe with a very brief history on the geological timeline. Geologists have shown that we are living in a new geological era: the Anthropocene. Although we are so small and seemly insignificant, our desire for technological progress, alongside the false understanding of inexhaustible fossil fuels, followed by mineral exploitation of the earth's crust, made mankind a geological force that has a huge impact on other organisms in the biosphere, atmosphere, lithosphere and hydrosphere.

A new kind of 'nature' is being created, one that is shaped by humanity. It consists of the sum of all the changes caused by humans on earth. Today the *technosphere* and the biosphere interact to form neo-natural phenomena.

Anthropogenic ecosystems extend all the way to highly controlled zones such as hospitals, where people create their very own evolutionary conditions for bacteria; or industrial zones and waste burner plants, where pigeons, raccoons and new varieties of plants have all found niches.

Technology is transformed geology and biological extinctions and decay bring new organisms to life.

The artists, scientists and graphic designers, who were selected to participate in *Agency of Living Organisms* conceive their practice as well in relation to other "things" and take an observing and critical position in relation to the surrounding and interactive spheres. They bring new visions, unique imagery, broadening narratives, and zoom in on details and relationships in our environment that we usually do not perceive. The *agents* do not shy away to question the ubiquitous classification systems, categories and value systems and their poetic experiments open up a new view on the world.

The projects refers to an expanded notion of ecology (*social ecology, mental ecology, and environmental ecology*)³ and it is dark as Timothy Morton describes beautifully:

Ecological awareness is dark; insofar as its essence is unspeakable. It is dark, insofar as illumination leads to a greater sense of entrapment. It is dark, because it compels us to recognize the melancholic wounds that make us up – the shocks and traumas and cataclysms that have made oxygen for our lungs to breathe, lungs out of swim bladders, and crushing, humiliating reason out of human domination of Earth. But it is also dark because it is weird.⁴

² Sloterdijk, Peter (2005): *Foreword to the Theory of Spheres*. In: Ohanian, M. & J.C. Royoux (eds.): *Cosmograms*. (New York: Lukas and Sternberg), p 225.

³ Félix Guattari, *The Three Ecologies* (London: Continuum, 2005, [1989]). *The French psychoanalyst and theoretician Félix Guattari tried from the late 1970s on to translate and convert this movement into a philosophical-political program.*

⁴ Timothy Morton, *Dark Ecology: For a Logic of Future Coexistence* (New York: Columbia University Press, 2016), p. 110.

Agency of Living Organisms functions as a social sculpture. This terminology was an art concept created by Joseph Beuys, who saw art as an opportunity to transform society. “How we shape our thoughts into words [... and] how we mold and shape the world we live in.” A sculpture is a work that exists in relation to its surroundings. All works in this exhibition project are directly related to the “natural” environment outside of the exhibition areas and are also in mutual relationship to one another. The quasi ‘living’ sculptures act moreover as metaphors for the aforementioned ‘hyperobjects’, producing new senses of “Nature (that reified, mythical thing over yonder in the mountains, in our DNA, wherever) which dissolves when we look directly at it”⁵.

As we find ourselves amidst pressing environmental and social crises, this project not only seeks to investigate our position in regards to our natural and built environment (the way we consume or sustain it), but also to lend insight into the perception of the self through the eyes of the ‘others’ and to forge an understanding of the complex networks within which we are embedded.

⁵Timothy Morton, *Queer Ecology* (University of Sussex, 2010)

Natura basatiaren alde


Zergatik diren lorategi txinatarrak lorategi frantziarrak baino gizatiarrago

Koenraad Van den Driessche. Geologoa da.

En defensa de la naturaleza salvaje

Por qué los jardines chinos son más humanos que los franceses

Koenraad Van den Driessche. Geólogo.



Lemoizko zentral nuklearra / Central nuclear de Lemoiz / Nuclear plant of Lemoiz. Koenraad Van den Driessche

Gutako askok modu erromantikoan desio dugu halako natura birjina bat. Bitxia da hori, izan ere, mitoaren arabera, aurrerakuntza modernoei esker, denik eta mundurik onenean bizi baikara, posible diren munduen artean. Saia gaitezen grina kartsu hori hobeto ulertzen.

XVII. mendean, André Le Nôtre paisaiagileak *jardins à la française* lorategi simetrikoak diseinatu zituenen, lerro zuzenen, forma geometrikoen eta ezpel zuhaixka zizelkatuen bidez islatu zuen natura osoki zegoela gizakiaren mende, eta, hala, bide eman zion garapenaren ideari eta giza adimena naturaren gainetik zegoela zioen horri, zeinean orok egin behar baitio mesede arrazionaltasunari eta garapen teknikoari... horra hor absolutismo berria. Hala, Antropozeno izeneko garaia iragarri zen, 1781ean James Wattedek bapore-makina asmatu osteko aroa hain zuzen: aro horretan, kopuru handitan erreko dira erregai fosilak eta horrek ondorio konponezinak ekarriko dizkio Lurreko klimari.

Muchos de nosotros cultivamos un anhelo romántico por una naturaleza virgen. Algo extraño, porque según el mito, vivimos gracias a los avances modernos en el mejor de los mundos posibles. Tratemos aquí de entender mejor este deseo intenso.

Cuando el paisajista del siglo XVII, André Le Nôtre, diseñó *jardins à la française* simétricos, con líneas rectas, formas geométricas y setos de boj esculpidos, retrató el sometimiento absoluto de la naturaleza al hombre, como precursor de la idea del progreso y la superioridad de la mente humana sobre la naturaleza, en la que todo tiene que dar paso a la racionalidad y al progreso técnico... el nuevo absolutismo. Auguraron el Antropoceno, en el que después de la invención de la máquina de vapor por James Watt en 1781, los combustibles fósiles se quemarán a gran escala con consecuencias irreversibles para el clima de la Tierra.

Gure eguneroko bizitzan, etorkizunerako uzten dugu zorientasuna eta ez gara gai orainaldian ere kontent bizitzeko. Ezin gara ziurtasunik gabe bizi eta, hala, gero eta neurotikoago bihurtzen gara, gero eta sarriago. Ezin konta ahala azterketa mediko eta ebakuntza egiten ditugu, eta horri esker sinesten gazte izango garela beti eta ez goazela heriotzara bidean. Terapia garestien bidez eusten diogu antsietateari kontrolpean eta kontsumitzaile porrokatu bilakatu gara, berandututako zorientasuna eta mugarik gabeko beldurrak jasate aldera. Ez dugu umiltasuna lantzen, ezpada anbizio aseeginak, eta lehengaiak neurrigabe xahutzen ditugu gure diru-gose muturrekoa elikatzeko. Errekasto baten soinuak hunkitzen gaitu, baina hormigoiaren pean ezkututzen dugu, tente eusteko.

Jakintzaren pozoiak hozka egin digu eta sorginduta gauzka, muturreraino ustiatu nahi dugu dena, gure ingurumena osoki kontrolatu. Garapenaren ikuspegi mendebaldarraren arabera, denak izan behar du hobe eta azkarragoa, zuzenagoa eta laburragoa, etengabe, ekonomiaren legeari edo nagieren legeari jarraikiz: ahalik eta gehien lortu, ahalik eta gutxien eginda. Berez, pentsamendu logikoa da hori, baina gehiago nahi dugu beti, inongo mugarik gabe.

Motorrak agertuz geroztik, gizakiak aiseago alda dezake lurraren azalera. Giza giharrak bezain zehatzak dira zilindro hidraulikoak, eta mila aldiz indartsuagoak. Paisaia, hondartza eta ibai botereak hondatzen dira, eta haien lekuan ipintzen hirigintza-minbiziak, begien mingarri.

Garapenak ez zituen gure burmuinak prestatu eta osatu etxebizitzak, metroak, autopistak eta merkataritza-guneak ikusteko edo interneten nabigatzeko; garunok aproposak dira, ordea, mamutak eta bisontek ehizatzen genituen garairako, izokinak arrantzatu eta fruitu lehorrak biltzen genituen sasoirako. Aurre egin diegu otso eta hartzen erasoei, min zorrotzak jasan ditugu, bai eta zauriak belarrekin sendatu ere.

Nekazaritza asmatuz geroztik, gizakiak bere ohiko habitat utzi du, hots, hautaketa naturalaren ondorioz egokitu zitzaion habitat. Ehiztari-biltzaileak talde txikitan bizi ziren eta ibilian zebiltzan beti, bizirik irauteko baliabide berrien bila etengabe. Hala ere, nekazaritzako soberakinen ondorioz, modu sedentarioan bizitzen hasi ziren, talde handitan batzen, eta botere-egitura sendoen bitartez antolatzen.

